

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

Badut hamar urteko lagun bat Tai izena duena. Txinan bizi zen eta etorri zenean euskara erakutsi nion.

Txinan bizi zenean telefonoz deitu nion eta erran zidan bidaiatu nahi zuela bere ama eta aitarekin, baina ez zekitela nora joan. Orduan nik galdetu nion ea Euskal Herrira, Oronozera, etorri nahi zuten. Berak baietz erran zidan.

Tai eta bere gurasoak Oronozera etorri ziren eta Tairi euskara erakusten hasi nintzen.

Nire lagunek ere erakusten zioten elkarrekin jostatzera joaten ginenean.

Bertizera joaten ginenean animalien eta landareen izenak erakusten nizkion.

Tai eta bere familia arras kontent zegoen hemen eta azkenean bertan bizitzea erabaki zuten.

Tai euskalduna da eta berak ere erraten du:

-Euskaraz bizi nahi dut!

Mikel Etxabarri

Ornozko eskola, 5. maila

Euskaraz bizi nahi dut

Jon 3 urterekin Oronozko eskolan hasi zen. Bere etxean ez zekiten euskaraz hitz egiten

Eskolan lagun berriak egin zituen eta lagunekin euskaraz solasten ikasi zuen. Berak eskolan ikasitakoa amari eta aitari erakusten zien .

Lekarozko Institutura joan zen. Han ere lagun berriak egin zituen eta aunitz ikasi zuen .

Unibertsitatera joan zen eta euskaraz gain bertze hizkuntza batzuk ikasi zituen: ingelesa, frantsesa eta alemana.

27 urterekin erabaki zuen idazlea izanen zela. Hasieran 12 liburu egin zituen eta geroxeago 33 gehiago.

Jende aunitz hasi zen Jonen liburuak erosten. Denei gustatzen zitzaizkien liburuak. Euskaraz idazten zituen.

Gaztelaniaz idazteko erran ziotenean Jonnek erantzun zien:

-Euskaraz idatziko ditut. Euskaraz bizi nahi dut!

Egilea: Oier Ugartemendia

Ornozko eskola, 5.maila

Euskaraz bizi nahi dut

Inari Txinako hamar urteko mutil bat da. Etorri zenean ez zekin euskaraz hitz egiten, baina txineraz eta ingelesez arras ongi moldatzen zen.

Duela hiru urte etorri zen gure eskolara . Etorri berritan ez zuen den-dena ongi ulertzen, baina saiatuz eta arituz gero eta gehiago ikasi zuen.

Guk berari euskara erakusten genion eta berak guri txinera pixka bat. "Ni hao", kaixo, erraten badakigu.

Kontatu zigun bere aita Txinatik Euskal Herrira etorri zela denda batean lan egitera.

Bera eta bere ama Txinan gelditu ziren. Aitak Euskal Herritik dirua bidaltzen zien.

Egun batean, aitak bi txartel bidali zizkien Inariri eta bere amari Euskal Herrira, Oronozera, etortzeko.

Hegazkinetik eguzkia sartzen ikusi zuen. Hegazkinean aspertu egin zen bidaia luzea zelako.

Ailegatu zenean Oronoz polit-polita iduritu zitzaion.

Gu ezagutu gintuen eta hasieran izen arraroak genituela pentsatu zuen : Mikel, Joseba, Eider, Eneko, Oier...bainan azkenean ikasi zituen eta ez zitzaizkion hain arraroak iduritzen.

Eskolako lehendabiziko egunean urduri zegoen, baina hurrengoetan lasaixeago zebilen.

Arratsaldetan gurekin juntatzen zen jostetan aritzeko.

Orakunden, Oronozko bestetan eta bertze hainbat bestetan denak elkarrekin ibiltzen ginen.

Gaur egun euskaraz ederki solasten da. Eskerrak eman dizkigu euskara ikasten laguntzeagatik.

Berak ere hauxe erraten du:

- Euskaraz bizi nahi dut!

Joseba Etxaniz

Oronozko eskola, 5.maila

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

Astelehenetan eta asteazkenetan joaten nintzen futbolera. Egun batean etorri zen euskaraz ez zekien lagun berri bat . Nik euskaraz pixka bat hitz egin nion. Erran zuen arras polita zela, baina ez zuela ulertzen.

Hurrengo astelehenean joan nintzen berriro eta pixka bat gehiago ikasi zuen.

Nik galdetu nion nongoa zen eta erran zidan Marokokoa zela . Berak arabieraz hitz egin zidan eta nik ez nion deus ulertu.

A ze irriak egin genituenak!

Pisu bat alokatu zutela eta igual Oronozko eskolara etorriko zela erran zidan.

Hurrengo egunean, asteartean, gure eskolara etorri zen. Eskola akitzean arras ongi pasatu zuela erran zidan, baina euskara zaila zela. Nik lasai egoteko erran nion ikasten lagunduko niola. Euskara erakusten diot eta berak erran dit euskaraz bizi nahi duela.

Eneko Zelaieta

Ornozko eskola, 5. maila

Euskaraz bizi nahi dut

Amaia 25 urteko neska oronoztarra da. Erosketak egitera Arraiozko Simply supermerkatuara joateko ohitura du.

Simplyra joan zen egun batean kutxazain berri bat ikusi zuen eta Amaiak euskaraz solas egin zion, baina kutxazainak ez zion ulertzen. Amaiari barkatzeko erran zion euskaraz hitz egiten ez zekielako. Ikasi bai, ikasi nahi zuela, baina astirik ez zuela. Amaia kontent jarri zen inork ez ziolako inoiz hain atsegin barkamena eskatu euskaraz hitz egiten ez jakiteagatik. Hurrengo egunean berriz Simplyra joan zenean kutxazain bera tokatu zitzaion.

Kutxazainari euskara pixka bat erakutsi zion: kaixo, zer moduz?, ongi, gaizki.... Hurrengo egunean bezperan erakutsitako hitzak errepikatzeko erran zion eta kutxazainak ederki ikasiak zituen. Orduan Amaiak bertze hitz berri batzuk erakutsi zizkion: Holaxe, egunero-egunero, poliki-poliki, gero eta euskara gehiago ikasi zuen.

Azkenean, kutxazainak euskara ikasi zuenean, Amaiari erran zion:
Orain bai! Nik ere euskaraz bizi nahi dut!

Ane Garaikoetxea

Oronozko Eskola, 6.maila

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

Bazen behin Leire izena zuen Elizondoko neska bat. Leirek 20 urte zituen eta Ameriketara joan nahi zuen ingelesa ikastera

Baztango Udalak emandako diru-laguntza bati esker New Yorkera joan zen. Han Jenny izeneko lagun berri bat egin zuen. Leirek lagun horrekin ingelesez solasten zen.

Jenny jakinmina zuen Leireren herrialdeari buruz, Euskal Herriari buruz.

Leirek erranda bazekien euskaraz hitz egiten dela eta bere lagunari eskatu zion erakusteko pixka bat.

Leirek hauxe erakutsi zion “egun on”, “arratsalde on”, “kaixo” eta “zer moduz zaude?” erraten. Jenny kontent zegoen eta erran zion gehiago ikasi nahi zuela. Hilabeteak eta hilabeteak pasatu ondoren gero eta hobekiago hitz egiten zuen, baina ez zekien ongi ongi. Leire Euskal Herrira itzuli behar zen eta Jennyk Euskal Herrira berarekin joan nahi zuela erran zion.

Jenny Elizondon bizi da orain eta euskara Elizondoko Suinki Euskaltegian ikasten ari da.

Jenny eta Leire lagun handiak dira batzuetan elkarrekin ingelesez hitz egiten dute, baina Jennyk maiz erraten dio Leireri:

Euskaraz bizi nahi dut!

Olaia Otxandorena

Ornozko Eskola, 6.maila

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

Saioa hameka urteko neska oronoztar bat da. Izugarri gustatzen zaio kirola. Baztango Eskubaloi Taldean atezaina da. Neska xaulia denez, beti alde batetik bertzera tarrapataka dabil.

Behin frontoian bere lagunekin jostetan ari zela orkatila bihurritu eta animeleko mina hartu zuen, min sorra. Lagunek etxeraino lagundu zuten.

Aitak, larrituta, kotxea hartu eta Iruñeko Ospitalera eraman zuen. Hango medikuak ez zekien euskaraz. Saioak gaztelaniaz jakin badaki, baina urduri zegoenez, ez zekien nola azaldu medikuari gertatutakoa eta aitari eskatu zion itzultzeko berak erraten zuena. Erran zioten mina nola hartu zuen eta non zuen.

Hurrengo egunean, Iruñean bertan, bertze mediku batengana joan ziren eta zorionez, horrek bai, bazekien euskaraz.

Mediku horrekin, Aitziberrekin, Saioa lasaiago egon zen eta gai izan zen sentitzen zuena bere hizkuntzan, euskaraz, adierazten.

Ospitaletik atera zirenean aitari erran zion:

-Kontent naiz mediku berria euskalduna delakoz. Hurregoan ere, ahal bada, Aitziberrengana etorri nahiko nuke.

Nik euskaraz bizi nahi dut!

Uxue Mindegia

Oronozko Eskola, 6.maila

Euskaraz bizi nahi dut

Anderren neska-laguna Fatima izeneko emakume brasildar bat da.

Egun batean, Anderrek bere familiari Fatima aurkeztu zion.

Anderren familia euskaraz solas egiten hasi zen. Orduan Fatimak erran zuen berak ez zuela euskaraz hitz egiten eta ez zuela deus ulertzen.

Anderren familiak euskaraz solasten erakutsi zion. Euskara erakutsi ondoren, euskaraz hitz egiten ausartzeko erran zioten.

Fatimak Anderren familiari ingelesez, frantsesez eta portugesez pixka bat hitz egiten erakutsi zien.

Urte batzuk geroxeago Anderrek eta Fatimak umeak izan zituzten. Fatimak bere guraso, osaba-izebei, lehengusuei Ander presentatu zien.

Fatima konturatu zen euskara arras gustukoa zuela.

Kanpoan sortutakoa denez, batzuk gaztelaniaz hitz egiten diote eta Fatimak erraten die:

- Nik euskaraz bizi nahi dut.

Naroa Zabaleta

Ornozko eskola, 6. maila

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

Amal 11 urteko neska bat da.

Marokon bizi zen bere familiarekin. Amalek bazekien amazigeraz, arabieraz eta frantsesez hitz egiten.

Amal eta bere amatxi hasi ziren hitz egiten amatxiren gazte garaiaz. Amatik erran zion gazte zenean amazigeraz gehiago hitz egiten zela, baina eskolan arabiera eta frantsesa erakusten zietela.

Egun batean Amalen aitak erran zion joan behar zutela bertze herrialde batera bizitzera lanik gabe gelditu zelako:

Amatik aitari erran zion Euskal Herrian, Baztanen, bazuela anaia bat, joateko harat eta osabak lagunduko ziola lana bilatzen.

Amal eta bere familia Baztanera etorri ziren.

Hemen Oronozko eskolan hasi zen eta lagun berriak egin zituen.

Naroa izeneko lagun handi bat egin zuen.

Naroak Amali lagundu zion egoera berrira moldatzen. Euskara eskolan ikasten hasi zen. Lagun guztiek euskara ikasten lagundu zioten, Naroak bereziki. Amalek Naroari amazigerako zenbait hitz ere erakutsi zizkion

Azkenean, Amalek ikasi zuen euskara. Amali iruditu zitzaion hizkuntza polita eta berezia zela. Momentu batean Amalek erran zion bere buruari:

-Nik euskaraz bizi nahi dut!

Kiara Gutiérrez

Ornozko eskola, 6. maila

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT!!!

Gu bizikletan ibiltzen ginen kuadrila bat ginen .
Egun batean mutiko berri bat etorri zen herrira Alexei izenekoa
Errusiatik etorri zen.

Alexei eta biok solasten hasi ginen. Erran zidan bizikletan ibiltzea gustatzen zitzaiola. Nik erran nion guk kuadrila bat genuela eta gonbidatu nuen gurekin etortzera.

Berak hasieran euskaraz ez zekien eta bizikletan ibiltzera joaten ginenean euskara erakusten genion.

Alexeik euskaraz ongi hitz egin arte ez genion erakusteari utzi.

Buelta luzeak ematen genituenez, 45km-koak, egiten genuena izaten zen denbora probestu euskara erakusteko. Beti ez genion euskara erakusten guri gertatutako gauzak ere kontatzen genizkion. Batzuetan baita guk egindako bihurrikeriak ere. Bera irriz lehertzen zen eta ongi pasatzen genuen. Egun batzuetan hotz handia egiten zuen eta bertzeetan sobera bero. Aldika kriston maldak izaten ziren.

Baina, bueno, hori ez da kontua.

Azkenik, euskara ikasi zuen eta ozenki erran zuen:

- EUSKARAZ BIZI NAHI DUT!!!!!!!

Gure artean beti euskaraz hitz egiten dugu.

Xabat Maritxalar

Ornozko eskola, 6. maila

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

Tiago Brasilgo, Rio de Janeiroko, 12 urteko mutil bat da. Gaur egun Oronozen bizi da.

Oronozera ailegatu zenean ez zekien euskaraz solasten. Berak portugesez hitz egiten zuen. Gure eskolan hasi zenean lagunok euskara ikasten lagundu genion.

Poliki-poliki euskaraz solasten ikasi zuen.

Egun batean futbolean jostatzen ari ginela Tiago arras ona zela konturatu ginen. Futbolean aritzen ginenean denak bere taldean izan nahi genuen eta batzuetan gure artean haserratzten ginen bere ekipoan egon nahi genuelako.

Baztango Futbol Taldean izena eman zuen.

Bere lehendabiziko entrenamenduetan arras gustura aritu zen eta lagun berriak egin zituen.

Bere lehenbiziko partidoan Tiago nerbiostu zen, baina 2-0 irabazi zuten eta berak bi gol sartu zituen. Bere bigarren partidoan 3-0 irabazi zuten eta Tiagok hiru gol sartu zituen.

Partidoa akitu zenean Tiagok ozenki oihukatu zuen:

“Euskaraz bizi nahi dut”.

Aimar Lizasoain

Oronozko eskola, 6. maila

EUSKARAZ BIZI NAHI DUT

Amaia Elizondon bizi den eta 11 urte dituen 6. mailako neska bat da. Amaiak baditu bi anaia eta ahizpa bat. Amaiari gimnastika erritmikoa egitea gustatzen zaio.

Egun batean lagunekin jostetan zegoelarik frontoiko eserleku batetik erori, min hartu eta medikurengana joan zen. Medikua ez zekien euskaraz eta Amaiak min handia zuen eta urduri zegoelako zail egiten zitzaion gaztelaniaz azaltzea gertatu zitzaiona. Derrigorrez ospitalean gelditu behar izan zen. Beharrik ospitalean bazen euskalduna zen erizaina bat, Edurne. Edurneri esker ospitaleko egonaldia arinagoa egin zitzaion.

Ospitaletik alde egin zuen egunean eskerrak eman zizkion Edurneri hain atsegina izateagatik. Medikua ere etorri zitzaion bisitan eta adierazi zion ongi tratatu zutela, baina komeni dela mediku euskaldunak ere izatea. Akitzeko hauxe erran zion:
-Euskaraz bizi nahi dut!

Eider Zamora

Oronozko eskola, 5. maila

Euskaraz bizi nahi dut.

Egun batean Egoi, Julen, Adolfo eta Mateo Bertizko mendira joateko gelditu ziren.

Basurdea bila joan ziren eta mendiz gora abiatu ziren. Hainbertze goratu ziren gero ezin zutela jeitsi eta sasien artean pasa behar izan zuten.

Julenek erran zuen : - Hobe da itzultzen bagara.

Gainerakoak ados zeuden eta azkenean basurdea aurkitu zuten.

Animalia ikusita berdurtu diren eta ziztu bizian alde egin zuten handik.

Bidean basozaina aurkitu zuten eta gertatutakoa kontatu zioten. Honek

erran zuen : - Lo siento, pero no os entiendo.

Orduan lagunek euskara ikasteko lagunduko zutela aipatu zioten eta basozaina haien laguna egin zen.

Hortik aitzin zoriontsu bizi izan ziren denak.

*Mateo Ocampo Agudelo. LHko 4. maila. Oronozko eskola
(gelakideak euskaratua)*

Lau lagunak

Baziren behin hiru lagun Bertizera joan zirela, erreta zegoen basoa ikusi nahi zuten. Hektarea aunitz erre ziren eta begiratu zuten dena eta basurde hil bat aurkitu zuten, erreta zegoen.

Bertizetik atera eta egurra mozteko baimen berezia eskatu zuten eta baietza jaso zuten.

Egurra mozten hasi ziren. Julen piketeak zorrozten hasi zen bitartean Oierrek alanbrea ekarri zuen zerrakura bat egiteko eta hortan aritu zen.

Joxe egurra mozten eta mozten zegoen. 13:30etan bazkaltzera joan ziren ostatu batera. Ostaturia Urgain zen.

Eta arras goxoa zegoen dena.

Gero lanera itzuli ziren.

Bapatean pausoak aditu zituzten eta basurde bat zela iduritu zitzaiezen baina izituak zeuden.

Batek erran zuen : - Nor zara ? , eta pertsona batek erantzun zuen “ ni mendizale bat naiz bainan ez dakit euskaraz. Barkatu izitzeagatik ”.

Azkenean denak lagunak egin ziren eta mendizaleak erran zuen : - Me gusta mucho vuestro trabajo.

Eta Julenek galdetu zuen : - ¿Quieres trabajar con nosotros?

eta mendizalea erran zuen : - Si quiero.

Euskaraz aritzeko lagunduko zutela adostu zuten.

Eta geroxago akitu zuten eta Urgainera joan ziren denak konten-konten.

Julen Maya Martin. LHko 4. maila. Oronozko eskola

Medikuaren istorioa

Bazen behin Ana izeneko neska bat.

Arront ona zen eta ez zituen gezurrik erraten.

Txikitatik medikua izan nahi zuenez medikua izateko eskolara joaten zen. Egun batean dena gainditu zuela erran zioten : - Pastu duzu eta medikua zara.

Ana ospital batean lanean hasi zen. Bigarren egunean Marta deituriko lankide bat etorri zen berarekin lan egitera.

Anak erran zion : - Pasatzen didazu botika hori ?

eta Martak erantzun zion : - ¿ Qué me has dicho ? No te entiendo.

Martak ez zekien euskaraz hitz egiten.

Ana kezkatua bere familiei kontatu zien dena. Han zeuden amatxi Lupe eta Luisa.

Hauak erran zioten : - Hitz egin berarekin euskaraz eta horrela ikasiko du.

Anak kasu egin zien eta hortik aitzin, poliki-poliki bere lankideak euskaraz ikasi zuen.

Leire Gomez Coleman, LHko 4. maila. Oronozko eskola.

Saioa eta medikuak

Egun batean bazen neska bat deitzen zela Saioa. Saioa etxean zegoen eta eztarriko mina, tripako mina eta buruko mina zuen eta medikura joan zen.

Medikuak Haizea zuen izena eta bere laguntzailea Paula.

Orduan Saioak erran zien: - Kaixo, Saioa naiz.

Haizeak erantzun zuen: - ¿ Qué has dicho ?

Euskaraz ez zekitela ikusita Saioak ez zekien zer egin.

Elkar ulertu ez zutenenez Saioa etxera itzuli behar izan zen.

Etxera ailegatu zenean tripako mina ,eztarriko mina eta buruko mina zuen eta berriz medikura joan zen.

Ailegatu zenean Saioak ez zuen tripako minarik, eztarriko minarik ezta buruko minarik eta etxera bueltatu zen.

Saioak etxean tripako mina ,eztarriko mina eta buruko mina zuen baina medikura ailegatzen zenean dena kentzen zitzaion.

Azkenean Saioak erdaraz erran behar izan zien zer gertatzen zitzaion, baina ez zekien sobera ongi dena erraten.

Medikuek konprenitu zutenean pastila batzuk eman zizkieten eta hortik atzin ez zuen gehiago izan tripako minik, eztarriko minik ezta buruko minik.

Eta Saioa hortik aitzin arras pozik bizi da.

Elene Lizasoain Apeztegia, LHko 4. maila. Oronozko eskola.

Basurdearen ipuina

Behin batean bazen mutiko bat deitzen zela Egoi. Egoi Bertizeko mendiko baserri batean bizi zen Adolfo bere lagunarekin eta otsoa eta basurde batekin. Baina beti ari ziren diskutitzen ea nork bazuen indar gehiago.

Adolfok entzuten zuen dena eta pentsatu zuen : - Berriz ari dira diskutitzen.

Adolfo joan zen kuartora eta erran zuen : - Faborez geldi zuek biek. Indarra bera duzue. Orain etorri lan egitera.

Gero Egoiek erran zuen : - Hombre... hemen zaudete !.Hasiko gara lan egiten aizkorarekin.

Egoi, Adolfo, otsoa eta basurdea hasi ziren egurra mozten aizkorarekin. 21:30etan denak zeuden nekatutak.

Joan ziren afaltzera eta lo egitera.

Hurrengo egunean hartza bat agertu zen. Arras haserre eta gosez zegoen. Eta derrepente hartzak baserria ikusi eta erran zuen erdaraz :

- Ahaaaaaa... jango zaituztet !!

Egoi esnatu zen lehendabizikoa.

- Zerbait aditu dut bainan ez dut konprenitu. Gero lehiora atera eta hartza ikusi zuen : - Haaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa lagundu!

Otsoa, Adolfo eta basurdea iratzarri ziren eta denek erran zuten:

- Zer pasatu da Egoi ?

Egoiek erran zuen :- Hartza bat ikusi dut !.

Orduan Adolfo, Egoi ,Otsoa eta Basurdea mozorratu ziren mounstro bat bezala.

Hartzak mounstroa ikusita beldurtu zen eta lasterka joan zen bere etxera.

Hortik aitzin Egoi, Adolfo Otsoa eta Basurdea ongi bizi izan ziren baserrian.

Adolfo Espinosa Gutiérrez. LHko 3. maila. Oronozko eskola.

Xegone aizkolaria

Behin bazen aizkolari bat Xegone izena zuela. Baserri batean bizi zen. Egun batean, eguerdian, egurra moztera joan zen. Egur aunitz moztu zuenean erremolkean kargatzen hasi zen. Bere baserria 2 kilometrora zegoen.

Ailegatu zenean baserriko txabolan egurra uzten hasi zen eta dena txabolan sartu zuen. Lana akituta berendatu zuen.

Hurrengo egunean, txabolara joan zen egur pixka bat hartzera eta ehizilari bat bere hiru txakurrekin ikusi zituen.

Ehizilariak galdetu zion ea basurderik ikusia zuen inguruan eta Xegonek erran zion han aitzinean ikusi zuela.

Xabik bere hiru txakurrekin kilometro aunitz egin zituzten oinez eta azkenean txakurrek basurdea aditu zuten baina eskapatu egin zitzairen eta Xabi ehiztariak tiro eman eta hil egin zuen.

Hurrengo egunean Xabi ehiztaria Xegonen baserrira joan zen eskerrak ematera. Eta Xabik euskaraz ez zekien eta Xegonek erran zion :

- Erakutsiko dizut euskaraz hitz egiten !.

Eta hortik hiru hilabeteetara euskaraz bazekien eta Xabi ehiztariak Oronozera bizitzera etorri nahi zuen.

Horrela egin zuen eta Xegoneri eskerrak eman zizkion euskara erakusteagatik.

Egoi Otxandorena Petrirena, LHko 3. maila. Oronozko eskola.

Medikua

Behin batean bazauden bi neska deitzen
zirela Enea eta Elaia.
Enea medikua zen. Eta arras jatorra eta uapa zen.

Elaia medikura joan zen mina zuelako hankan.

Medikuak erran zion ongi ongi zegoela eta
Elaia arras pozik paratu zen.

Gero etxera joan zen bainan muleta behar zuen.
Medikuak ez zuen ongi konprenitu erdalduna zelakotz.

Eta berriz medikura joan zen. Eta orduan
muletak kendu zizkion eta orduan bai kontent, hiper
kontent zegoen eta puina bukatu da.

Ixone Garcia Altxu. LHko 2. maila. Oronozko eskola.

Dentista

Halako egun batean Eric eta Alex joan ziren dentistara hortza kentzera eta hori erran zioten dentistari.

Jeni dentistak erran zuen : - ¿ Qué me has dicho ?

Baina Eric-kek bazekien euskaraz eta erran zion euskaraz erakutsiko ziola eta 2021ean euskara erakutsi zion dentistari, eta akitu da.

Naroa Gomez Coleman. LHko 2. maila. Oronozko eskola.